

Apirila 2024 – HILEKO IDEIA

Senidetasunaren lekuko izan

Izan al gara inoiz ezohiko gertaera baten lekuko, markatu gaituena eta besteekin partekatu beharra sentitu duguna? Edo alderantziz, norbaitek gurekin garrantzi handiko zerbait partekatu izana?

Hilabete honetako ideiak gure bizitza eta gizartea eraldatzeko gai diren esperientzia positiboak partekatzera eta lekukotasuna ematera gonbidatzen gaitu.

Cezar Kurti, sinesmen ez-erlijiosoak zituen idazle eta itzultzaile albaniarrek, esan ohi zuen Jesus historikoaren hitzek, berarentzat gizateriaren martiri handienetakoa zena, beti liluratu zutela. Cezarek bere bizitzan zehar, maitasunez eta apaltasunez, gizon guztien arteko batasunaren eta senidetasunaren balioaren testigantza eman nahi izan zuen, bere herriarentzat Danteren “*Divina Comedia*” eta Chiara Lubichen “*Meditaciones*” itzuliz.

Komunitate askoren historiak, mendeetan zehar Jesusek bere garaikideei egin zien bizi proposamenarekin bat etorri direnak, bere hitzen berezko indarra aztertzeraz gonbidatzen gaitu, gaur egun ere guran indartsu entzuten direnak; senitarteko komuniora eta gizarte solidarioagoak eraikitzeraz gonbidatzen gaituzte; bizitza-komunio intimo eta sakonean oinarritutako komunitateak, inguratzen gaituzten desberdintasunei arreta handiagoa jartzen dietenak, bake-ekintzetarako joera handiagoa dutenak.

Gaur egun, sinesmen, aukera politiko, etnia eta kultura desberdinetako pertsonak senidetasunezko harremanak dituztela ikusteak, eta elkarrekin beren ingurunezko bizitza hobetzea bilatzen dutenak, senidetasuna eskala txikian edo handian ikusarazten digun testigantza da, eta senidetasun unibertsala posible dela uste izatera bultzatzen gaitu. Testigantza horrek erakarri eta kutsatu egiten gaitu. Gure baitan eta besteekin batera horren lekuko izateko indarra aurkituko dugu, ikara eta beldurra gaindituz.

Jesusen atzetik etorri ziren emakumeak eta gizonak eraldatu egin ziren bere mezuak entzutean; guk ere testigantza eman dezakegu berak proposatzen duen maitasunak aske egiten gaituela, hesi guztiak apurtzen dituela eta benetako anai-arreba lez lotzen gaituela.

Batu ditzagun gure indar txikiak, gure talentuak, gero eta kimen handiagoarekin gure sormena eta askatasuna erabiliz ekin diezaiozun senidetasun-bide horri, jakinez elkarrekiko maitasuna bizitzea kutsakorra dela, gizaki ororen bizi-premiari erantzuten baitio.

Gure testigantzak beste batzuk animatu eta bultzatu ditzake, gu ikusita, gurekin bat egingo dutenak, guztiok lortu nahi dugun ondasun komun hori eraikitzeko leialtasunez eta gardentasunez lan egitera.